

7.- MIKEL GAYOSO ALBERRO

Irunen jaio zen duela 29 urte. Ezkondua eta berriki aita izan da.

Gizarte Integrazioko Goi Teknikaria da, 3. adinekoen arretan, atzerritarren orientazioan eta lan mundurako integrazioan, Genero indarkerian eta Biktimologian eta Irungo Gurutze Gorrian bolondres moduan esperientzia dauka.

Gaur egun, segurtasun pribatuaren arloan lan egiten du taldeko buru bezala, Genero Indarkeriaren zerbitzura atxikita.

Irungo Uri Buru Batzarreko kide da.

Mendia, txirrindularitza edo futbolera jolastea dira bere zaletasunak. Denbora familiarekin eta lagunekin partekatzea gustatzen zaio. Eta ahal duen neurrian, bidaiatzea eta leku desberdinetako kulturarekin eta historiarekin lotutako guztia ezagutzea.